

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“46,67 kilometrotik (Done Bikendi Haraneko hiri zonaren bukaera) 48,75 kilometrora eta 49,82 kilometrotik 55,98 kilometrora (A-132ko gurutzagunea, Santikurutze Kanpezu) A-2128 errepidearen trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak, 2024ko otsailaren 29an, 116/2024 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Proiektu hau egiteko beharrezkoa den desjabetzea handitzea: “A-2128 errepidearen 46,67 kilometrotik (Done Bikendi Haraneko herrigunearen amaiera) 48,75 kilometrora eta 49,82 kilometrotik 55,98 kilometrora (A-132 errepidearekiko bidegurutzeta Santikurutze Kanpezun) trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektua”. Okupatzeko beharra deklaratzeta. Kreditu atxikipena. Bide jabari publikora afektatzea desjabetze espedienteko 144/001 finka.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 13ko 432/2021 Erabakiaren bidez, onspena eman zitzaion proiektu honek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari: “A-2128 errepidearen 46,67 kilometrotik (Done Bikendi Haraneko herrigunearen amaiera) 48,75 kilometrora eta 49,82 kilometrotik 55,98 kilometrora (A-132 errepidearekiko bidegurutzeta Santikurutze Kanpezun) trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektua”; gainera, haiek okupatu eta eskuratu beharra zegoela eta premiazko adierazpena egin beharra deklaratu zen, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularrari ahalmena eman zitzaion proiektua gauzatzeko behar ziren azalerak handitu edota aldatzeko.

Erreferentziako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendaren desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetu da.

2024ko urtarrilaren 10ean, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak jakinarazi zuen berriki berrezarri dela Iberdrolaren behe tentsioko sare elektrikoa –proiektuaren 4. ardatzeko 1+120 KParen inguruan kokatua, Orbison–, eta, makinak igartzeko, beharrezkoa izan dela Kanpezuko 4 poligonoko 125 lurzatiaren gainean desjabetu gabeko lurzatiak okupatzea, zeinak 2012/208 desjabetze espedienteko 68 finkari baitagozkie.

Era berean, 2024ko urtarrilaren 30ean, jakinarazi zuen aipatutako proiektuko obrak egikaritu bitartean, antzeman dela ezen Los Rincones transformazio zentroaren egungo kokapenak (30 sarbidearen amaieran dago) eragotzi egiten duela 149 finkara proiektatutako sarbidea, eta transformazio zentro horretatik abiatzen den behe tentsioko linearen zutoinetako batek oztopatu egiten duela 30 bidearen trazadura. Hori dela eta, beharrezkoa da zerbitzu hori berrezartzea, berriro kokatuta transformazio zentroa eta eraginpeko zutoina, bai eta 30 bidea luzatuta ere, transformazio zentroaren kokapen berrira iritsi ahal izateko.

Horretarako, 68/200, 141/100, 145/100, 146/100 eta 149/100 finkak sortzen dira, foru agindu honen eranskinean jasotzen diren afektazioekin, zeinak Desjabetze Atalak 1.493,62 eurotan balioesten baititu.

2024ko urtarrilaren 30eko txostena amaitzen da jasoz eraginpeko lurzatieta bat Kanpezuko 1 poligonoko 3039 dela, zeina 144/001 finkari baitagokio. Hondar hori desjabetze izapidean eskuratu zen, eta AFaren Ondare Ondasunen Inbentarioan sartuta dago. Kontuan hartuta berriz ere eragingo zaiola lurzatiari, eta haren jabari publikoko erabilera dela eta, bide jabari publikora afektatzea proposatzen da; beraz, finka hori ez da zerrendan sartu.

Beraz, desjabetze espedienteko 144/001 finka bide jabari publikora afektatu behar da.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurrekusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzearako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz.

Era berean, adierazi behar da presaz okupatu beharrezkotzat deklaratzek gauzatu beharreko proiektuen handitzeak ere hartzen dituela, eta, beraz, presako prozeduraren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak egin behar dira.

Aztertu dira Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak eta Desjabetze Atalak egindakoak, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Proiektu hau egiteko beharrezkoa den desjabetzea handitzea: "A-2128 errepidearen 46,67 kilometrotik (Done Bikendi Haraneko herrigunearen amaiera) 48,75 kilometrora eta 49,82 kilometrotik 55,98 kilometrora (A-132 errepidearekiko bidegurutzeara Santikurutze Kanpezun) trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektua." Handitze hori eranskinean jasotakoaren arabera egingo da.

Bigarrena. Deklaratzea handitze horren eraginpeko ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeko, aldi baterako okupatzeko eta aireko zortasuna ezartzeko.

Hirugarrena. 1.493,62 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000505 "Desjabetzeak" aurrekontu aplikazioaren kontura, ondasunen eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Laugarrena. Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetzea eranskinean ageri diren finken desjabetzea.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Seigarrena. Bide jabari publikora afektatzea desjabetze espedienteko 144/001 finka.

Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, eta Kanpezuko Udaltxeko lokaletan ager daitezkeen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzegatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 1a

Bide Azpiegituren zuzendaria

MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila
 Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Álava

46,87 KILOMETROTIK (DONE BIKENDI) HARANEKO HIRI ZONAREN BUKAERA) 46,75 KILOMETROA ETA 49,82 KILOMETROTIK 55,98 KILOMETROA (A-132KO GURUTZAGUNEA, SANTIURUTZE KANPEZU) A-2128 ERREPIDEAREN TRAZADURA HOBETZEKO ETA PLATAFORMA ZABALTZEKO ERAKUNTZA PROIEKTUA PLATAFORMA A-2128, P.K. 46,87 (FINAL ZONA URBANA DE SAN VICENTE DE ARANA) A.P.K.48.750 Y P.K. 49.820 A.P.K. 55.980 (INTERSECCION CON LA A-132 EN PROYECTO DE CONSTRUCCION DE MEJORA DE TRAZADO Y AMPLIACION DE PLATAFORMA DE LA CARRETERA A-2128, P.K. 46,87 (FINAL ZONA URBANA DE SAN VICENTE DE ARANA) A.P.K.48.750 Y P.K. 49.820 A.P.K. 55.980 (INTERSECCION CON LA A-132 EN STA. CRUZ DE CAMPEZO)

Esp./Espot. 2012/208-D

FINKA ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	BEHIN-BETIKOA		ERAGINDAKO ZAZALERA M2		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURZATIA			ALDI BATERAKOA	ZORFASUNA	SUPERFICIE AFECTADA M2	SERVIDUMBRE		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	POLIGONO	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	TEMPORAL				
68/200	Nº SOLEDAD GAUNA FERNANDEZ DE GACEO SERAPIO GAUNA FERNANDEZ DE GACEO	04	125	KANPEZU / CAMPEZO	BOILUR-FRUTA-ARBOLAK / FRUTAL TRUPERIA		188			3/4/24	10,00
141/100	DAVID URIARTE ATAURI	01	3637	KANPEZU / CAMPEZO	BARATZA-FRUTU ARBOLAK-ARTIA- FRUTALES		62			3/4/24	10,45
145/100	ANGEL ALFREDO SAEZ MARTINEZ DE ANTOÑANA	01	1695	KANPEZU / CAMPEZO	ARTADIA / ENCINAR		45			3/4/24	12,00
146/100	SERGIO PEREZ MARTIN AINTZANE PEREZ MARTIN YERAI PEREZ MARTIN	01	1696	KANPEZU / CAMPEZO	LANTZEKO LURRA / TIERRA DE LABOR	2	172			3/4/24	12,45
149/100	EDORTA CHASCO AYALA IGNACIO CHASCO GARCIA DE ACILU ELENA CHASCO GARCIA DE ACILU	01	1697	KANPEZU / CAMPEZO	LANTZEKO LURRA / TIERRA DE LABOR	75	240			3/4/24	13,30